

Eszeptikoak



ENEKO GORRI GANTIER
EUSKARA TEKNIKARIA

Euskal Herria laborategi txiki bat da: alternatiba, kontrakultura edo auto-gestioaren zelaia da. Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Xiberuan, tradizioz, beti uztartu izan ditugu “egitea” eta “aldarrikatzea”. Kulturala da: larunbatean espazio publikoa okupatzen dugu kexua adierazteko eta ondoko egunetan gure premiei erantzuteko tresnak sortzen segitzen dugu. Gainetik etortzea itxoin gabe. Nehoren baimenaren zain egon gabe.

Urteetan militante belaunaldiak aldizkatu dira, aitzindariak sortu zutena oinordekoei transmitituz. Horrela erai-ki dira gure lurraldeak beharrezkoak zituen zutoinak euskararen biziberri-terako, ekonomia eraldatzailearen sustapenerako, kulturaren berpizkunderako edo lurrraren defentsarako, adibidez. Ederra da 300.000 biztanle dituen lur zati txiki batean sortu eta iraunarazi diren ekimenak zenbatzea.

Herritar xumeontzat, egunerokoan posible zaigu trantsizioa erakitzea tokian tokiko inizatiba hauek erabiliz. Euskal monetaren zirkulazioa bideratuz, etxeko argindarra Energiaren bidez

Bere logela librea
Airbnb-n alokatuz
irabazitako euroak
Intermarchén xahutu,
eta denbora berean
herriak sorturiko tresna
hauen kontra blablaka
ari denak harritzen nau

eskuratuz, jateko saskia AMAP batean betez, etxean hutsa den logela etorkin bati irekiz, hilabeteko diru isurketa erregularra Lurzaindiari eginez... Deus gutxi aldatu gabe gure biziari, aldaketa asko eragiteko gaitasuna dugu. Sinpleki eta xumeki. Engaiamendu militantea praktikara ekartzeko eta balioekin koheren-
tzian bizitzeko aukera txikiak dira.

Baina beti harritu naute espiritu kri-
tiko-erradikal baten izenean aukera

hauek baliatzen ez dituzten “militante” eszeptiko batzuen joerek. Ez sistematik kanpo bizitzeko ausardia dutenek; horiek miresten ditut haien koherentzia eta eredugarritasunagatik. Bere logela librea Airbnb-n alokatuz irabazitako euroak Intermarchén xahutu, eta denbora berean herriak sorturiko tresna hauen kontra blablaka ari denak. Alternatiba hauek ez omen dira aski nazionalak, edo sobera sisteman sartuak dira, edo euskararekiko eskasak, edo kooperatibismo eredu agortu batekoak, edo aurpegi zuritzaileak... Kritika sana da, baina bere xarma galtzen du fede txarra edo alferkeria gordetzeko erabiltzen delarik.

Gurean ere inertziak azkarrak dira. “Beste mundu bat eraiki, baina nire etxea aldatu gabe!”. Post-koronabirus aroak borrokatzeko arrazoi berriak eka-
rriko dizkigu. Auzolanean, elkartasunez, txikitik eraginez eta espermentatuz urratsez urrats segituko dugu aitzina. Aitzineko belaunaldiek *Le grand soir* amesten zuten bezala igurikatzen badugu *le monde d'après*, ez baititugu ez bata ez bestea ezagutuko. ●

Konfinamendua
arintzeko
**ARGIAren
multimedia
kanala**

Milaka bideo, guztiak euskaraz
edo euskarazko azpizdatziekin.



▶ argia.eus/multimedia